

Arabar Errioxatik Bermeora mandazainek egiten zuten bidea ez zen beti leku beretik pasatuko. Ezinezkoa da jakitea Erdi Aroan merkataria nondik nora ibiltzen ziren gure eskualdeko bide horietan.

Txango honetan bide historiko horren puntu garrantzitsuenak lotzeko sortutako ibilbidea egingo dugu, GR 38. Beraz, marka zuri gorriak jarraitu beharko ditugu Gernikatik Bermeora joateko.

Udaletxe aurretik abiatu eta Villa Argentina alboan Errege Bidera igoko gara. Santa Ana ermita albotik igaro eta Urdaibaiko dorrea eta San Kristobal ermita dauden auzunera doan bide zaharretik jarraituko dugu.

Aldapa igo eta Urberuaga auzora helduko gara, Atxondoko harrobi alboan ezkerretik jarraitzeko. Baina lehen bihurgunean, auzo errepidea albo batera utzi eta Upeta erreka bazterretik Urtxurriñora doan bidea hartuko dugu. Hasieran pista zabal batetik joango gara, baina hau pixkanaka estutu egingo da.

Urtxurriñon eskumako bidea hartuko dugu, Ikazurieta auzoa inguratu eta Birjinarestitik Altamirara jaisteko.

Altamiratik, Paresiko bidetik, Alarbingoikoa errotara helduko gara. Herribide zahar bat dago hemendik Goierri auzora. Bidean Sorbituagako iruinari albotik igaroko gara. Merez du hau bisitatzea.

Iturbetik Larragora hormigoizko pista zabal batetik joango gara. Istorio bitxiak gordetzen ditu Larragoko iturriak.


Pistari jarraituz Larrazabale auzo-eskola albotik igaroko gara, jarraian Urkiobeko bidegurutzera heltzeko.

Eskumako bidetik jarraituko dugu, Urkiobetik Pakotene baserrira doan pistatik, baina azken honetara heldu aurretik ezkerreko partean Katillotxu aldera doan baso bidea hartuko dugu.

Katillotxuko multzo megalitikoko hainbat trikuharri ondokit pasatzen da GR 38a. Behin tontorrera helduta, mendian behera, Bermeo aldera jaisten den pista eta osteko errepidea jarraitzea besterik ez dugu Demikura heltzeko.

Demikutik Bermeora jaitsiko gara eta Kurtzio ermita aurretik pasatu ostean Lamera parkera helduko gara, amaiera puntura.

FITXA TEKNIKOA



**18,4
km**
LUZERA

**330
m**
MALDA

GR 38



Ikuspegia Maikutik gora



Arabar Errioxako mahastiak



Bermeoko portua



Goierritik oinez

Antzinako merkantzia bideak

Gaur egun merkantzien joan-etorria bizkorregia eta zabalegia da, gero eta errazagoa baita produktuen garraioa. Baina garai batean, jendea ez zen gehiegi bere jaioterritik urruntzen eta urrutiko produktuak mandazainek ekartzen zituzten.

Ardoaren eta arrainaren ibilbidea antzina mandazainek eta merkatariek egiten zuten bidea da, Arabako Errioxa eta Bizkaiko portu nagusien (Bermeo, Lekeitio eta Ondarroa) artean produktu hauen komertziorako egiten zutena.

GR 38ak merkantzia bide zahar hau zeharkatzen du eta Oion (Arabako) eta Bermeo (Bizkaian) elkartzten ditu. Bidean naturgune interesgarriak zeharkatzen ditu, hala nola, Laguardiako aintzirak, Toloño-Kantabria mendizerra, Urkiola natura parkea edota Urdaibaiko Biosfera Erreserba.



Ardoa, mama gozoa

Ardoa edatea ez da zaila izaten, baina ardoa dastatzea ez da kontu erraza. Hala ere, dastatzeak ardoaz gozatzeko aukera hobea eskaintzen digu.

KOPA da ardoa dastatzeko tresna egokia. Heren bat bete behar da eta kopari oinetik eutsi behar zaio.

IKUSI. Ondo ikusteko kopa 45° okertu behar da. Ardoak argia eta distiratsua izan behar du. Ardo motaren arabera, kolore gama aldatuko da. Zahartu ahala, gama aldatuz joan da.

USAINDU. Aromak ahotik zein sudurretik helduko dira. Kopa geldidagoela usaindu eta mugitzean beriz usaindu. Ardoa aireztatzean aromak nabarmendu egiten dira.

DASTATU. Mihiaren alde bakoitzak zapore desberdin bat antzematen du. Beraz, modu egokian dastatzeko ardo gutxi hartu baina ahoan ondo zabaltu behar da.



ikus

usaindu

dastatu

